



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

ORDENANTZA FISKALA, MATERIALEN LAGAPENARI, LANGILEEN ZERBITZUAK EMATEARI ETA HORIEN ERABILERARAKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

20. ORDENANTZA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea da materialak lagatzea eta langileen zerbitzuak ematea pertsonai, entitateei, elkarteei eta taldeei, Udalaren zerbitzu eskudunak gainbegiraturik.

Materialak laga daitezke eta langileek zerbitzuak eman ditzakete baldin beharrezkoak ez badira Antsoaingo Udalaren beraren funtzionamendu normalerako.

2. artikulua.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta ondokoetan xedatutakoari jarraikiz, ordenantza honetan prezio publikoak ezartzen dira materialak lagatzeagatik eta langileek zerbitzuak emateagatik, eranskinean ezarri bezala.

3. artikulua.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzera beharturik daude materialen lagapenaren eta/edo langileen zerbitzuen onuradun diren pertsonak, entitateak eta elkarteak.

Ordaintzetik salbuetsita daude Udalbatzan ordezkaria duten talde politikoak, bai eta Antsoaingo Udaleko Entitateen Udal Erregistroan inskribatuta dauden entitate, elkarte eta taldeak ere, Udalaren babesa duten ekintzak antolatzen dituztenean.

4. artikulua.

Ordenantza honetako prezio publikoen tarifak eranskinean agertzen dira. Zerbitzuaren iraupenaren eta emandako zerbitzuko jende kopuruaren arabera izango da langileen zerbitzuagatik tarifa.

5. artikulua.

Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da Udaleko kultura teknikari arduradunak eta mantentze lanetako arduradunak ondasunak erabiltzeko edo langileen zerbitzuak emateko baimena ematen duten unetik, eta prezio publikoaren ordainketa honela egingo da:



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

a) Materialen lagapenaren edo zerbitzu ematearen kasuan, gordailu baten bidez, zuzenean Udalaren diru kutxetan sartuta, gutxienez ere 48 ordu lehenago; hain zuzen ere, ezarritako zenbatekoa.

b) Zerbitzu ematearen kasuan, eta, haren izaeragatik ezin bada aldez aurreko gordailurik egin, Udalak faktura/likidazioa aurkeztearekin batera.

Egindako eta baimendutako eskaeran atzera egiteko eskariak bakar-bakarrik onartuko dira arrazoiak modu sinesgarrian frogatzen badira; idatzita egingo da eskaria eta, betiere, ekitaldiaren data baino hiru egun lehenagotik, gutxienez.

6. artikulua.

Udal zerbitzu teknikoei komenigarria iruditzen zaienean, fidantza bat eskatzen ahalko da lagatako materialetan gerta daitezkeen hausturei, kalteei, erabilera okerrei eta material galduerentzako. Maileguan utzitako balioaren %10a izango da fidantza. Eskaeraren xedea den lagapenaren baldintzak betetzen ez badira edo eskabidean adierazitako xedea aldatzen bada, fidantza osoa edo haren zati bat atxikiko du Udalak.

7. artikulua.

Utzitako elementuen erabilpen faseetan edozein motatako istripuak gertatuko balira, haien erantzukizuna ez legokioke inolaz ere Udalari.

8. artikulua.

Lagatako materialek izaten dituzten haustura eta kalteak entitate erabiltzaileen gain egongo dira. Harreraren arduradunek kalteei buruzko oharra jasoko dituzte, kopia bat erabiltzaileei eman eta jatorrizkoa zerbitziburuei igorriko diete. Haiek egingo dute behar den tasazioa.

9. artikulua.

Lagatako materiala itzuli izanaren frogagiria eta, baldin badago, kalteen oharra, kasuan kasuko udal bulegoak jasotzen dituenean, likidazio proposamena igorriko zaio Kontu-hartzaitzari, onetsi eta kobratzeko tramitazioa egin dadin.

10. artikulua.

Eskabideak Antsoaingo Udalaren Erregistroan aurkeztuko dira. Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Eskabide orria, osorik betea.

b) Eskatzailearen NANaren eta/edo entitate edo elkarte antolatzailearen IFKren fotokopia.



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

c) Egin beharreko jardueraren memoria (sustatu beharreko jardueraren edo ekitaldiaren deskribapena, non egingo den, egunak eta orduak, sarbide mota –librea/sarrera ordainduta– eta eskatzen diren materialak eta/edo langileen zerbitzuak, zehazturik).

Udalaren elementuak data berean lagatzeko interesdun bat baino gehiago izanez gero, eta erabilgarri dauden elementuen kopurua gaintzen bada, eskatzaileen zerrenda egingo da, eta lehentasuna izango dute Antsoaingo Udalaren Entitateen Udal Erregistroan izena emanda dauden entitateek; irizpide horretatik abiatuta, sarrera erregistroko dataren arabera antolatuko da.

11. artikulua.

Materialen lagapenean ez da sartzen materialak lekualdatzea, muntatzea eta desmuntatzea, baldin horretarako langileen zerbitzua ez bada eskatu, zerbitzuari tarifa jarri ez bazaio eta ordainketa egin ez bada.

Lagatako materialak lanegunetan hartuko dira udal biltegitik, astelehenetik ostiralera, lanorduetan, Udaleko mantentze-lanen arduradunaren jarraibideak betez.

Jarduera edo ekitaldia bukatu, entitate antolatzaileak materialak udal biltegiara itzuliko ditu, mantentze-lanen arduradunarekin adostutako epean eta moduan.

12. artikulua.

Jarduera bukatzen denetik materialak udal biltegiara itzuli arte, entitate antolatzailearen erantzukizuna da horiek zuzen bildurik egotea, behar diren segurtasun neurrien arabera, hirugarrenek manipulatzeko aukerarik izan gabe.

13. artikulua.

Materialak lagata dauden denboran, entitate antolatzaileak bere gain hartuko ditu erantzukizun zibila, penala edo bestelakoa, materialen erabilerari eta zaintzari dagokienez, eta soilik bere kargura izango dira bere erantzukizunetik eratorritako kalte-galerengatik kalte-ordainak, eta Antsoaingo Udalak ez du inolako kalterik jasoko horiengatik.

14. artikulua.

Materialen lagapena eta/edo langileen zerbitzuak eskatzeak ez du galaraziko agintari eskudunei behar diren baimenak eskatu behar izatea, egin beharreko jarduera edo ekitaldia gauzatzeko beharrezkoak direnak.

15. artikulua.

Udaleko zerbitzuek edozein momentutan ikuskatzen ahalko dituzte lagatako materialen lekualdatze, muntatze eta desmuntatze lanak, eta jarduera edo ekitaldiaren antolatzaile diren entitate eta



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

elkarteek horren gainean egiten dizkieten jarraibide eta iradokizun guztiak onartu eta bete beharko dituzte.

16. artikulua.

Antsoaingo Udalari dagokio ordenantza honetan jaso ez diren kasuak erabakitzea, eta zalantzarik sor dezaketen artikuluen azken interpretazioa.

17. artikulua.

Materialen lagapena eta/edo langileen zerbitzuak diskrezionalitatez onartuko ditu Udalak, eta, ukatuz gero, ezin izango da erreklamatu.

ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOAK, LANGILEEN ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA MATERIALAK LAGATZEAGATIK

a) Materialak uztea/lagatzea.

Agertokiaren modulua (2 metro karratu, 0,40 metroko hankekin), eguneko: 12,75 euro.

Aulkia, unitatea, eguneko: 0,66 euro.

Sei lagunendako mahaia, eguneko: 3 euro.

b) Langileen zerbitzuak ematea.

–Esku hartzen duen mantentze-lanen arduraduna, C mailakoa, ordu edo zatiki bakoitzeko: 23,71 euro.

–Zerbitzu anitzetako enplegatu espezialista, D mailakoa, ordu edo zatiki bakoitzeko: 21,25 euro.

–Zerbitzu anitzetako enplegatua, D mailakoa, ordu edo zatiki bakoitzeko: 19,32 euro.

–Garbiketako langilea, E mailakoa, ordu edo zatiki bakoitzeko: 17,35 euro.

Zerbitzua jaiegunean (larunbat arratsaldean edo igandean) egiten bada, orduko prezioa 7,72 euro gehituko da C mailako langileen kasuan, eta 7 euro D eta E mailako langileenean. Tarifak urtero eguneratuko dira, baldin eta indarra duten soldatetan igoera bada.

c) Hobariak.



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

62. ALDIZKARIA - 2018ko martxoaren 28a

1. Irabazi asmorik gabeko entitateek, baldin jarduera soziala, kulturala, kirolekoa, ongintzako edo antzekoa egiteko eskaera egiten badute, jende guztiarentzat eta bere zerbitzuak hirugarrenei kobratu gabe, prezio publikoen %40ko hobaria izango dute materialen lagapenean.
2. Beste toki entitate batzuekin sinatzen diren hitzarmenetan ezarritakoarekin bat, entitate honek prezio publikoetan hobariak edo salbuespenak izan ditzakete materialen lagapenean.